



HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, EAeko UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN GERTATZEN DIREN_ESKOLA JAZARPEN EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK ARAUTZEN DITUENA.

Azken urteetako ikerketa ugari elkarbizitzari alderdi positiboetatik heltzea gomendatzen dute. Hobe da elkarbizitzarako lagungarri diren estrategiei arreta handiagoa ematea, elkarbizitzaren kontrako kasuei eman beharreko unean-uneko erantzunean zentratzea baino. Ikuspegi horrek eskola-giro egokia lortzen laguntzen du, eta ikasleei garapen pertsonal eta sozialerako gaitasunak eskuratzen ere lagundu egiten die.

1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, ezarritako helburuen arteko bat ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea da, elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik. Halaber, 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, 11. Artikuluan, xedatzen duenaren arabera, osotasuna, identitatea eta duintasun pertsonalak ikasleen eskubideetako batzuk dira.

Eskola jazarpena eskubide horiek erasotzen dituen jokabidea da eta, zoritxarrez, badu presentzia gure ikastetxeetan. Ez da unean uneko arazo isolatua, egiturazko erro sakonak ditu eta, ondorioz, harekiko konponbideak eskola-erkidego osoaren ahalegina eskatuko du.

201/2008 Dekretuaren arabera, ikastetxeetako gobernu-organismoek, irakasleek eta gainontzeko pertsonalak elkarlanean aritu beharko dira eskola jazarpena erazteko. Horretarako ezarritako prozeduraren arabera jokatu dute, eta eremu horretan antzemandako edozein zantzu zuzendariari jakinaraziko diote, honek Hezkuntza Administrazioari helarazi diezaion.

Ikastetxeek beren gain hartu behar dute edozein indarkeria motaren kontrako konpromisoa. Halaber, indarkeriazko ekintzak prebenitzeko ahal dituzten bitartekoak jarri behar dituzte martxan, faktore positiboak edo prebentzioaren aldekoak sustatu behar dituzte eta behar bezalako elkarbizitzaren kontra doazen horiek gutxitu edo neutralizatu behar dituzte. Halaber, kaltetutako harremanak onera ekartzeko ereduak proposatu beharko dituzte.

Berengan sor zitezkeen eskola jazarpen egoeren kudeaketa errazteko asmoz, 2004/2005 ikasturtetik aurrera, ikastetxeen esku jarri du Hezkuntza Sailak *EAEko ikastetxeetan eskola jazarpen kasuetan jarduteko Gida*. Gida hori bi aldiz aldatu da, araudiaren gaurkotze desberdinei erantzuteko.

Jarduteko *Gida* horrek balizko eskola jazarpen egoera kasuetan jarraitzeko *Protokoloa* ezartzen du, eta ikastetxeek eman beharreko urratsak xedatzen ditu.

Eskola-elkarbizitza sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da *Protokoloa*, eta, antzemandako eskola jazarpen kasu guztietan, ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruen jardungo dutela bermatzea du helburu.



Protokoloaren xedea da ikastetxeek era horretako egoeretan eman beharreko urratsei buruzko orientabide argiak izatea. Oinarrizko jardueren proposamen bat da, eta ikastetxe bakoitzak, bere zirkunstantzia konkretuen arabera eta ezarritako elkarbizitza-arauen barruan, zabaldu eta sakondu ahal izango du.

Protokoloa, maiz, bateratu beharko da 201/2008 Dekretuak arautzen duen prozedura zuzentzailearen aplikazioarekin.

Lehena.- Eskola jazarpenaren definizioa

Hezkuntza-ikerketak aditzera eman ditu eskola jazarpenari lotutako baldintzak: bestearengan kaltea eragiteko nahitako jokabidea izatea, beste hori bere burua babesteko gai ez izatea eta erasoaren errepikapena egotea.

Eskola jazarpena badagoela ziurtatu ahal izateko, adierazitako baldintza guztiak bete behar dira. Hala ere, kontuan hartu behar dira kasu bakoitzaren zirkunstantziak, inplikaturako pertsonengan izan dituzten ondorioak eta egoerak denboran zehar izan duen bilakaera. Horrela, ikastetxeak igorri ahalko du eskola jazarpena izateari buruzko erabateko eta oinarrituriko irizpena.

Ez dira nahastu behar eskola-jazarpena eta elkarbizitza asaldatzen duten unean uneko beste egoera batzuk (borrokak, txantxak, noizbehinkako liskarrak, eskola-bandalismoa, gatazkak, diziplinarik eza, portaera txarrak, ikasketa-interesik eza ...); izan ere, azken horiek ez datoz bat aurrez azaldutako baldintzekin. Kasu horiek 201/2008 Dekretuak, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Bigarrena.- Jarraibideen helburua

Jarraibideen xedea da EAEko ikastetxeetako ikasleriaren artean antzemandako eskola jazarpen kasuen kudeaketarako *Protokoloaren* erabilera arautzea.

Protokoloaren helburua da ikastetxeetako irakasleek eta eskola-erkidegoko gainontzeko kideek jakin dezatela nola jardun eskola jazarpen balizko kasuetan. Elkarbizitza positiboa bultzatu nahi du, elkarbizitzaren urraduratzat dugun eskola jazarpenari emandako erantzunak beti eduki dezan 201/2008 Dekretuak ezartzen dion asmo hezitzailea; eta, etorkizunean era horretako egoerak agertzea eragotziko duten balioetan oinarrituz, elkarbizitzen ikasteko akuilu izan dadin.

Protokoloak esku-hartzea gidatzen du, eta esku-hartze hori honako printzipio hauen arabera gauzatuko da: prebentzioa, eskola jazarpenarekiko sentsibilizazioa, konfidentzialtasuna, inplikaturako ikasleriaren babesa, zuzendariak bideratutako eta koordinatutako esku-hartzea, sistematizazioa, eraginkortasuna eta berehalakotasuna.

Protokoloak oinarrizko izaera du eta derrigorrezkoa da; ikastetxe bakoitzak, ordea, testuinguruaren edo kasuaren ezaugarri berezien arabera, egokitze edo zabaltzeko aukera dauka.

Hirugarrena. Jarduteko Protokoloaren erabilera

a) Protokoloaren hasiera.

Ikastetxeak hasiera emango dio *Protokoloari* eskola jazarpen eremukoak izan zitezkeen portaerak ikusi edo ezagututako kasu guztietan



Baita emango dio hasiera polizia salaketa, salaketa judiziala, Arartekoari helarazitako kexa edo Hezkuntza Ikuskaritzak eskatutako kasuetan ere.

Aldi berean, 201/2008 Dekretuak, ikasleen eskubide eta beharrak arautzen dituenak, xedatutakoaren arabera, eskola jazarpen kasuetan hasiera eman beharko zaio elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuetarako dagokion prozedurari, jazarpen gertakarien berri izan eta, gehienez, hiru eguneko epearen barruan.

b) Protokoloaren garapena

Zuzendariaren funtzioa da *Protokoloaren* garapena koordinatzea, eta baita, esku-hartzeen hezkuntza-izaera eta legezketasuna bermatzea ere.

Eskola jazarpen kasuetan jarduteko prozedurak honako urratsak biltzen ditu:

1. urratsa.- Eskola jazarpena izan daitezkeen jokabideak behatzea. Balizko jazarpen egoeraren jakinarazpena

Eskola jazarpenari lotutako jokabide edo zantzuren bat ikus edo ezagut lezakeen Hezkuntza-erkidegoko edonork jakinarazi beharko dio inplikaturako ikasleengandik gertuen dagoen irakasleriari, honek datuak alderatu ditzan, eta egindako behaketek eskola jazarpenaren zantzuak ematen dituzten edo ez argitzeko balioko duen informazio berria jaso dezan.

2. urratsa.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Hasierako bilera. Protokoloaren hasierari buruzko erabakia

Balizko jazarpen egoeraren bat ikus edo ezagut lezakeen edozein irakaslek edo hezkuntza komunitateko kidek zuzendaritzari helaraziko dizkio egindako behaketak edo jasotako adierazpenak.

Zuzendaritza bilduko da ustezko biktimaren familiarekin edo legezko ordezkariekin, eta bilera horren akta jasoko du. Bertan, gertakarien deskribapena eta familiak emandako informazioa jasoko dira, eta baita, ikaslea babesteko ikastetxeak hartuko dituen neurriak ere. Familiari akta horren kopia emango zaio. 0 ERANSKINAK eredu jasotzen du.

Halaber, 5 eskola-eguneko epearen barruan, informazio esanguratsua eman lezakeen ikastetxeko irakasleria edo bestelako pertsonala bilduko du zuzendaritzak, eta kasuaren jarraipenerako taldea osatuko du.

Talde horrek aztertu eta balioetsiko du jasotako informazioa, planifikatuko du balizko jazarpen kasua baden edo ez den erabakitzen lagunduko duten bestelako datuak jasotzeko esku-hartzea, eta, horietan oinarrituta, Protokoloa hasteari buruzko erabakia hartuko du. Bilera horren akta jasoko da, I. ERANSKINAREN ereduari jarraiki.

Eskola jazarpen balizko kasu baten berri izatean, zuzendariak, ahalik eta lasterren, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko dio.

0 eta I. ERANSKINAK ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira.

3. urratsa.- Informazioa jasotzea eta aztertzea. Premiazko neurriak hartzea. Familiei jakinaraztea. A TXOSTENA egitea.



Zuzendaritzak, kasuaren jarraipenerako taldearen aholkularitzaz lagunduta, gertakarien ebidentziak jasotzeko prozesua antolatuko du, eta, frogatutzat emandako datuak oinarri, dagozkion erabakiak hartuko ditu.

Informazioa zuhurtziaz jasoko da, eta, bai emandako datuen, bai datuak eman dituzten pertsonen isilpekotasuna zainduko da.

Beharrezkotzat jotzen bada, ustezko biktimaren segurtasuna bermatu eta eraso berriak eragotziko dituzten premiazko babes neurriak hartuko dira.

Familiei kasuaren bilakaerari buruzko informazioa emango zaie, eta ikastetxea eta familien arteko komunikazioa sistematikoa eta koordinatua izango da, egoera modu egokian kudeatzeko eta inplikaturako ikasleriaren segurtasunaren zaintza errazteko.

Bilera guztien akta jasoko da, eta horretan, bileraren helburua, bertaratutakoak, ondorioak eta proposamenak adieraziko dira.

Kasuaren daturik garrantzitsuenak eta hartutako erabakiak idatziz jasoko dira *A TXOSTENEAN* (II. ERANSKINEAN)

4. urratsa.- “A TXOSTENA “ Hezkuntza Ikuskaritzari igortzea.

A TXOSTENA beteta, Hezkuntza Ikuskaritzari igorriko dio zuzendaritzak, gertakarien berri izan zuen unetik hasi eta, 15 eskola-eguneko epearen barruan, eskola jazarpena izanda edo ez izanda ere.

5. urratsa.- Kasuaren araberrako hezkuntza-tratamendua, eskola jazarpenaren ebidentziarik aurkitu EZEAN.

Jasotako datuak aztertu ondoren, eskola jazarpenik ez dagoela ondorioztatzen bada, beharrezkoak zuzentzeko hezkuntza-tratamendurik egokiena erabakiko du ikastetxeko zuzendaritzak, betiere 201/2008 Dekretuak elkarbitzita positiboak sustatzeko nabarmentzen dituen oinarrietatik abiatuta.

Erabaki hori *A TXOSTENEAN*, jasota agertuko da, dagokion atalean

6. eta 7. urratsak.- Berriazko prozedura eta B TXOSTENA egitea eskola jazarpenaren ebidentziak BAI aurkitzen direnean.

Jasotako informazioa aztertu ondoren, eskola jazarpena badagoela pentsatzeko nahikoa ebidentzia aurkitu direla ondorioztatzen bada, ikastetxeak egoera konpontzera bideratutako neurriak jasoko dituen Jarduera Plana osatu eta martxan jarriko du. Plan hori *B TXOSTENEAN* jasota agertuko da (III. ERANSKINA)

B TXOSTENA Hezkuntza Ikuskaritzak eskatzen duenean ere egingo da.

Eskola jazarpen kasuetan jarduteko Gidak, VI ERANSKINEAN, aipaturako Jarduera Planaren burutzea erraztu dezaketen orientabideak eskaintzen ditu.

8. urratsa.- B TXOSTENA Hezkuntza Ikuskaritzari igortzea.

B TXOSTENA kasu guztietan igorriko zaio Hezkuntza Ikuskaritzari, *A TXOSTENA* bidali zenetik hasi eta, 22 eskola-eguneko epearen barruan.

9. urratsa.- Beste erakunde batzuei jakinaraztea.

Bereziki larriak diren kasuak edo delituaren zantzuak agertzen dituzten kasuetako gertakariak Fiskaltzari jakinaraziko zaizkio. 201/2008 Dekretuak, 75. Artikuluan, zehazten ditu jakinarazpen horretarako jarraibideak.

10. urratsa.- Kasuaren amaiera.

Ikastetxeko zuzendaritzak kasuaren bilakaeraren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari. Halaber, idatziz jakinaraziko dio egoera modu egokian birbideratutzat jotzen duenean.

Laugarrena. *Protokoloa zabaltzea.*

Ikastetxeek Elkarbizitza Planetan txertatuko dituzte eskola jazarpen kasuetan hezkuntza komunitate osoa sentsibilizatzeko prozedura, eta baita *Protokoloa* ezagutarazteko erabiliko duten hura ere.

Jazarpenaren eremuko edozein egoera ikusten edo ezagutzen den kasuetan jarduteko jarraibideak zehaztuko dira, eta hezkuntza komunitate osoak ezagutzen dituela bermatzeko neurriak hartuko dira.

Bosgarrena.- *Hezkuntza Ikuskaritza eta Berritzeguneak.*

Hezkuntza Ikuskaritzak salatutako kasu guztien jarraipena egingo du, eta ikastetxeak horiekiko egin duen kudeaketa ebaluatuko du. Halaber, Ebazpen honetako jarraibideen inguruan sor daitezkeen gaiei eta jasotzen diren prozesu edo dokumentuei buruzko aholkularitza emango du.

Horretaz gain, Berritzegunearen aholkularitza ere izango dute ikastetxeetako zuzendaritzek hezkuntza-erantzuna planifikatzeko.

Seigarrena.- *Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko Gida*


Eskola jazarpen kasuetan jarduteko Gida ikastetxeen eskura aurkitzen da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian, problematika konplexu honi aurre egiteko orduan irakasle eta zuzendaritza-taldeentzat lagungarria izan dadin, eta baita begirune eta tolerantzia oinarritutako eskola-elkarbizitza egokia lortzen lagundu dezan ere.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 18an

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza Sailburuordea



ESKU-HARTZEAREN FASEAK AZALTZEN DITUEN ESKEMA



0. ERANSKINA FAMILIAREKIN EGINDAKO BILERAREN AKTA

1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- IKASLEAREN DATUAK

Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen lehen hizkiak	
Ikaslea identifikatzeko kodea	
Sexua	
Adina	
Maila/Taldea	

3.- FAMILIAK KONTATU DITUEN GERTAKARIAK

(Familiak kontatu dituen gertakariak ahalik eta zehatzenen transkribatuko dira)

4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN BEHIN BEHINEKO NEURRIAK

..... (e)(a)n, 20..-ko ren (e)(a)n.

Zuzendaria

Aita/Ama/Tutorea

Izpta. :.....

Izpta. :.....

I. ERANSKINA

IKASTETXEAN EGINDAKO BILERAREN AKTA

1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua

3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.)

4. ADOSTUTAKO AKORDIOAK

(Adostutako akordioez gain, protokoloa irekitzeari buruzko eta 201/2008 Dekretuak araututako prozedura zuzentzailea martxan jartzeari buruzko dagozkien erabakiak adieraziko dira. Baita adieraziko dira, biktima babesteko hartutako premiazko neurriak, salatutako gertakarien ustezko eragileari zuzendutako neurriak, eta baita, garrantzitsua den beste edozein zirkunstantziari dagozkionak ere).

Aztertutako neurriak jazarpena ez direla erabakiko balitz, erabaki hori eragin duten datuak eta ebidentziak adieraziko dira, eta baita hartutako neurriak ere.

..... (e)(a)n, 20.. ko ren (e)(a)n.
Zuzendaria

Izpta. :

OHARRA: Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.

II. ERANSKINA A TXOSTENA

1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. BILDUTAKO INFORMAZIOA¹

- *Inplikaturako ikasleriaren identifikazioa datuak*

a) Ustezko biktima(k)

	Ikaslea 1	Ikaslea 2	Ikaslea 3
Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen lehen hizkiak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

b) Salatutako jokabidearen ustezko eragilea/ak

	Ikaslea 1	Ikaslea 2	Ikaslea 3
Izen-abizenen lehen hizkiak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

- *Ustezko eraso gertatu den lekua/ak*

--

- *Lekukoak, baleude*

--

INFORMAZIO GEHIGARRIA

	Adierazi X batekin
Badago mediku-txostena	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Polizia, epai-salaketa edo Fiskaltzaren aurreko salaketa jarri da	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

¹ Nahitaezko konfidentziasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

3. IKASTETXEAK JASOTAKO INFORMAZIOA

- **Datuak eta ebidentziak jasotzeko ikastetxeak erabilitako prozedurak** (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, soziogramak, egiaztatzeak, familiarekin egindako bilerak e.a.)

- **Salaketaren ondoren, ikastetxeak jasotako datuak eta ebidentziak.** Modu zehatz eta objetiboan deskribatuko dira.

4. BILDUTAKO INFORMAZIOEN AZTERKETA. Ondorio esanguratsuak (jasotako ebidentzietan oinarrituta)

5. JAZARPENA DAGOEN EDO EZ DAGOEN ERABAKITZEA

- *Ba al dago botere-desorekarik, babesgabetasunik?*

- *Ba al dago mina eragiteko intenzionalitaterik?*

- *Ba al dago pertsonalizaziorik?*

- *Ba al dago errepikapenik?*

- *Azterketa globala egin ostean, esan al genezake badagoela bestearengan mina nahita eragiteko jokabidea, jokabide hori errepikatu egiten dela eta ustezko biktima ez dela bere kabuz defendatzeko gauza?*

	Adierazi X batekin
BADAGO JAZARPENA	
EZ DAGO JAZARPENIK	

JAZARPENA BADAGOELA erabakiko balitz, jazarpen mota eta larritasuna adieraziko da

	Ez	Bai	Behingoa	Errepikatua
1. Bazterketa eta marjinazio soziala – Norbait baztertzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa). – Sexuagatik, jatorriagatik, minusbaliotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.				
2. Ahozko eraso – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa). – Goitizenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak ezkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Zuzeneko eraso fisikoak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo gehiegikeria eta/edo jazarpen sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu- gehiegikeria gauzatzea. – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7.- Ziberjazarpena – Telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta gainerako mutileri eta/edo neskei helaraztea edo Interneten esekitzea.				

6.- HEZKUNTZA-TRATAMENDUA

- **Jazarpenik EZ dagoenerako hezkuntza-tratamendua**
(201/2008 Dekretua aplikatu den adieraziko da)

- **Jazarpena BAI badagoenerako: biktima babesteko eta inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak deskribatuko dira** (201/2008 Dekretua aplikatu den adieraziko da)

7.- FAMILIEI JAKINARAZTEA

(datak, prozedurak, edukia, akordioak e.a.)

..... (e)(a)n, 20... ko ren (e)(a)n.

Zuzendaria

Izpta.:

III. ERANSKINA B TXOSTENA

1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimaren izen-abizenen lehen-hizkiak	

2.- "A TXOSTENA" HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN SORTUTAKO INFORMAZIO GEHIGARRIA ETA DATU GARRANTZITSUAK

Bileretan, elkarrizketetan, ikasgelako behaketetan (soziogramak eta beste teknika batzuk) edo beste toki batzuetan sortutako informazio berria, edo beste iturri batzuetatik lortutakoa.

--

Ikastetxeak eskatu al du Berritzegunearen edo Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitza?

--

3.- JARDUERA-PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

--

Hezkuntza-jarduerak

- Biktimarekin

--

- Jazarpena eragin duen ikaslearekin/ikasleekin

--

- Ikasle ikusleekin edo, hala komeni bada, ikasgelako taldearekin

--

Beste jarduera batzuk

- Familiekin

- Irakasle-taldearekin

Ziberjazarpen kasuetarako jarduera espezifikoak

4.- BILERAK FAMILIEKIN

Datak, bertaratuak, bilerako xedeak eta ondorioak eta/edo bileretan hartutako erabakiak.

5.- JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduera-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak

Jarduera-planaren eta gauzatutako esku-hartzeen ebaluazioa

Zer prozeduraren bidez eta zenbatean behin eman zaion informazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari

..... (e)(a)n, 20... ko ren (e)(a)n.

Zuzendaria

Izpta.: